MADDI ALTUNA ODRIOZOLA (1. guztira 1)
Ingurumen Zerbitzuko Arduraduna
Sinaduraren data: 20/06/2024
HASH: 1ef3243a3e2642064087004552472ed3e

EPELEKO ZABORTEGIA BEHIN BETIKO ZIGILATZEKO PROIEKTUAREN IDAZKETA ETA OBRA ZUZENDARITZA, SEGURTASUN ETA OSASUNAREN KOORDINAZIOA, ETA INGURUMEN AHOLKULARITZA ERAMATEKO KONTRATUA. BALDINTZA AGIRI TEKNIKOAK

1 – Aurrekariak 2
2 – Kontratuaren xedea 2
3 – Kontratuaren zerbitzura dagoen dokumentazio teknikoa 4
4 – Proiektuaren idazketa 5
4.1 Kontsiderazio orokorrak 5
4.2 1. FASEA partzialki zigilatzea eta gelaxka berriari dagozkion 2. eta 3. FASEAK erabat zigilatzea 6
4.3 Zabortegiaren oinarriko dikea zigilatzea 6
4.4 Exekuzio proiektuaren edukia 7
4.5 Definición, diseño y ejecución de las obras complementarias 9
5 – Obra zuzendaritza 11
6 – Segurtasun eta osasun arloko koordinazio zereginak 14
7 – Obren ingurumen aholkularitzako zereginak 15

Baliozkotze Kod.: 7CQEJ3XYWM9F9JYWNEJ2FEYSN
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 16

1 – Aurrekariak

1993. Urtean, EPELEko zabortegia ireki zen, Debagoieneko Eskualdean sortutako obra eta hondakin industrialei irtenbide bat emateko, Euskadiko erkidegoko 423/1994 Dekretuak eta 1995eko otsailaren 15eko Aginduak ezarritako baldintzak betez.

Zortzi urte beranduago, zabortegien inguruko araudia aldatu egin zen, eta EPELEko zabortegiak egokitzapen obrak behar zituen Estatuko 1481/2001 Errege Dekretuak ezarritako baldintzetara egokitu ahal izateko.

Era berean, Estatuko 16/2002 Legeak (Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legea), baldintza gehigarriak ezartzen zituen EPELEko zabortegiko moduko instalazioentzat.

Honen ondorioz, Eusko Jaurlaritzak, 2008ko apirilaren 30eko Ebazpenaren bitartez hondakin ez-arriskutsuen zabortegi proiekturako ingurumeneko baimen bateratua eman zion Debagoieneko Mankomunitateari, eta zabortegiaren egokitzapen obrak hasi ziren 2012ko abuztuaren 7an (zelda zaharraren zigilatze obrak eta zelda berriaren sorrera).

Bigarren zeldako 3., 4. eta 5. Faseak ustiatzen hasi gabe zeudelarik, 2019. urtean, zabortegiaren ustiapena eten egin zen, hondakin sarreren beherakadak ez zituelako ustiapen gastuen kosteak estaltzen.

Azken 4 urteetan aukera ezberdinak aztertu dira EPELEko zabortegiarentzat, berriz irekitzea barne. Baina 2022 eta 2023an egindako ikerketa geoteknikoen emaitzengatik, eta zabortegiaren azpitik ur garbiak batzen dituen galeriaren egoerarengatik, Debagoieneko Mankomunitateak zabortegia ixtea erabaki du (2024.03.21ko Gobernu Juntak hartutako erabakia).

2 – Kontratuaren xedea

Agiri honetan jasotako estipulazioekin bat etorriz, kontratu honen xede izango da zabortegia behin betiko zigilatzeko exekuzio proiektu xehatua idazteko laguntza teknikoa, eta, zehazki, honako eremu hauetakoa:

- Zabortegiaren oinarriko dikea (gelaxka zaharra).
- Gelaxka berriari dagokion 1. Fasearen zigilatze partziala.
- Gelaxka berriari dagozkion 2. eta 3. Faseak erabat zigilatzea.

Baliozkotze Kod.: 7CQEJ3XYWM9F9JYWNEJ2FEYSN
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 16



1. Irudia. Gelaxka berriari dagozkion zigilatze eremuak

Gainera, lizitatzaileek honako lan hauek hartu beharko dituzte kontuan beraien eskaintzetan:

1. 4.5 atalean definitutako obra osagarriak gauzatzeko eraikuntza-irtenbide egokienak diseinatzea, proiektuan sartu beharko direnak.
2. Obra horien zuzendaritza fakultatiboa (obraren zuzendaritza eta obraren exekuzioaren zuzendaritza), obren kalitatea kontrolatzeko programa gainbegiratzea eta betetzea barne.
3. Segurtasunaren eta osasunaren arloko koordinazioa.
4. Obren ingurumen-aholkularitzako lanak egitea, Epeleko zabortegiaren ingurumen-baimen integratu efektiboan (IBB) xedatutakoaren arabera. [1].
5. Mankomunitateari laguntza eta aholkularitza ematea obra esleitzeko pleguak idatzi eta jasotako eskaintzak baloratzeko.

Obra-zuzendaritzak obren kalitatea kontrolatzeko programa ikuskatzeko eta betetzeko duen erantzukizunari kalterik egin gabe, IBBn xedatutakoa betez, Mankomunitateak zabortegia zigilatzeko geosintetikoen instalazioaren kalitate-bermea kontrolatzeaz arduratuko den enpresa bat izendatuko du, kontratu honen esparrutik kanpo, sustatzaileaz, obra-zuzendaritzaz eta eraikitzaileaz aparte (IBB-ren E1 atala).

[1] Ebazpena, 2015eko irailaren 3koa, Ingurumeneko sailburuordearena, zeinaren bidez aldatu eta eraginkor egiten baita Debagoieneko Mankomunitateari emandako ingurumen-baimen integratua, hondakin ez-arriskutsuen zabortegi-jarduerarako, Bergarako udal-mugartean (Gipuzkoa).

Baliozkotze Kod.: 7CQEJ3XYWM9F9JYWNEJ2FEYSN
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 16

Baldintza teknikoen agiri honetan atal bakoitzean egin beharreko lanak zehazten dira.

Xehetasun-proiektuaren edukia eta kontratu hau arautzen duten agiriak bat ez badatoz, pleguen edukia lehenetsiko da.

Esleipendunak Epeleko Zabortegiaren Ingurumen Baimen Bateratu eraginkorrak eskatzen dituen espezifikazioen eta edukiaren arabera egin beharko ditu lanak ondorio guztietarako.

3 – Kontratuaren zerbitzura dagoen dokumentazio teknikoa

Hauek izango dira xehetasun proiektua idazteko erreferentziazko dokumentuak:

1. Zabortegi zaharra zigilatzeko xehetasun proiektua eta zaborra botatzeko gelaxka berriaren irekiera, BIDEINek egina. Proiektu horretan, azkenean zabortegia osatuko duten gainerako gelaxken diseinua jasotzen da. Aipatutako proiektuaren arabera gauzatuko diren obren "as built" planoak.
2. Zabortegiko zelda berriko 1. FASEA partzialki zigilatzeko eta 2. FASEA irekitzeko xehetasun proiektua, HIRIGINTZA CONSULTING S.L.-k egina. Aipatutako proiektuaren arabera gauzatuko diren obren "as built" planoak.
3. 1. FASEa behin betiko eta guztiz zigilatzeko eta eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen plantarako plataforma bat sortzeko xehetasun proiektua, HIRIGINTZA CONSULTING S.L.-k egina.
4. EPELEko Zabortegiko ikerketa geoteknikoaren bi txostenak, LURGINTZAK 2022 eta 2024ean idatzitakoak.
5. Epeleko zabortegiko baskularen inguruko lurzoruaren egonkortasunari dagokion ikerketa, LURGINTZAK idatzitakoak 2022an.
6. Epeleko zabortegiaren inguruko Ingurumen Baimen Bateratu eraginkorra, 2015eko irailaren 3koa.
7. 1481/2001 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, hondakinak hondakindegian biltegiratuta ezabatzea arautzen dueña. 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegian biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena. 646/2020 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, hondakinak zabortegian ezabatzea arautzen duena; eta aplikagarri diren gainerako arauak.

Baliozkotze Kod.: 7CQEJ3XYWM9F9JYWNEJ2FEYSN
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 16

4 – Proiektuaren idazketa

4.1 Kontsiderazio orokorrak

Garatu beharreko lanen tamaina kontuan hartuta, ez da aurreikusten proiektu hau bi hilabete baino gehiago luzatzea.

Proiektuaren erredakzio fasean, esleipendun enpresak astero emango dio lanen garapenaren berri Mankomunitateari; horretarako, lan hauen jarraipen eraginkorra egiteko behar diren kontaktuak mantenduko dira.

Esleipendunak egin beharreko lanak dokumentu honetan adierazitako irizpideei jarraituko die eta, gutxienez, zera jasoko du:

- Mankomunitateak emandako informazioaren analisia eta ondorioak.
- Lekuan bertan egin beharreko azterketak. Bisitaldiak zabortegira.
- Dagoeneko proiektaturik dauden kalkulu hidrologikoen berrikuspena, jariatze uren eta kalkulatutako lixibiatuen arabera proiektatu beharreko drainatzeak egoki zehazteko, eta zuzenketak edota egin beharreko kalkulu berriak egiteko.
- Aukeratutako eraikuntza diseinua berrikusi eta baliozkotzea.
- Exekuzio proiektuaren azken soluziora iritsi arte, bai lanak koordinatzeko bai jarraipen egokia egiteko Mankomunitateak deitzen dituen lan bileretara joatea.
- Obraren ezaugarri orokorrak modu zehatzean definitzea, irtenbide zehatzak hartuz eta justifikatuz, Mankomunitatearen beharrei eta jarraibideei erantzunez, kontuan hartuta obrak eta batez ere garbigunearen inguruan garatutako beste zerbitzu batzuk aldi berean egiten direla. Horri dagokionez, eta Mankomunitatearen jarraibideen arabera, Jarduerak Koordinatzeko Plan bat egingo du obrak gauzatzeko fasean, zabortegiko ohiko jarduerak une oro martxan jarraitu behar duelako premisarekin. Horretarako, esleipendunak honako hauek zehaztuko ditu obren fase bakoitzean: makineriaren pasabidea, kokapena, pilaketak, obra-zerbitzu osagarriak, eta zehaztu beharreko beste edozein alderdi, baita Zabortegiaren inguruan garatutako jarduerekin duen lotura ere, deskribatutako premisak betez.
- Obren kostu ekonomikoaren kalkulu eta definizio xehatua, bai obrak batera gauzatzen direnean, edo faseka egingo balitz ere.
- Materialak eta eraikuntza soluzioak definitzea, eta horretarako adierazpen grafiko xehatua eta oparoa erabiltzea.
- Lurren eta hondakinen mugimendua definitzea, egonkortasun geoteknikoari dagozkion baldintzak kontuan hartuz.
- Laguntza teknikoko kontratuaren barrukotzat joko dira bai proiektuetan bai beste dokumentu tekniko batzuetan egin beharreko aldaketak, izan Mankomunitatearen aginduz datozenak, izan beste administrazio batzuekin lizentzia nahiz baimen administratiboak tramitatzetatik datozenak.

Baliozkotze Kod.: 7CQEJ3XYWM9F9JYWNEJ2FEYSN
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 16

Kontratu honen xede den proiektuaren erredakzioak honako alderdi hauek jaso beharko ditu:

4.2 1. FASEA partzialki zigilatzea eta gelaxka berriari dagozkion 2. ETA 3. FASEAK erabat zigilatzea

1. FASEAREN[2] zigilatze partziala eta 2. eta 3. faseen zigilatze osoa proiektatu beharko dira BIDEINek egindako xehetasun-proiektuan; hori guztia, Ingurumeneko Baimen Bateratu Efektiboan ezarritako eskakizunak kontuan hartuta.

Hala ere, kontuan izan behar da, BIDEIN enpresaren proiektuak ez duela behin betiko soluziorik ematen 2. eta 3. gelaxkentzat bere osotasunean, oinarrizko proiektuan, 4. eta 5. gelaxken azpian gelditzen bai ziren.

Esleipendunak diseinu proiektuan hartutako soluzioak baliozkotu eta egokitu beharko ditu, hala nola:

1. Aipatutako diseinu proiektuan zehaztutako iragazgaizte soluzioa.
2. Behin betiko zigilatze lanetan, gainazaleko ur garbiak drainatu eta biltzeko sistema berria diseinatzea.
3. Behin betiko zigilatze lanekin batera, BIDEIN-en proiektuko gasen drainatze sistema egokitzea.

Diseinu-proiektuan (BIDEIN) ezarritako irizpideetan egiten den edozein aldaketa justifikatuta egon beharko da, eta teknikoki eta/edo ekonomikoki onuragarriagoa izan beharko da.

Esleipendunak, Mankomunitatearekin batera, organo eskudunaren aurrean defendatuko du hartutako konponbidea.

Hemen deskribatutako baldintzez gainera, kontuan hartu beharko dira, baita ere, IBBan eta indarreko araudian ezarrita daudenak.

4.3 Zabortegiaren oinarriko dikea zigilatzea

Zabortegiko gainerako gelaxka zaharra ez bezala, oinarrizko dikea ez zen zigilatu 2012an hasitako obrak egin bitartean, ez baitzegoen informazio nahikorik dikearen gainetik lixibiatuen gainezkatzeen erregimenari buruz, zabortegiaren hondoko drainatzearen eraginkortasun-galeraren ondorioz sortuak.

Orain, EPELEren zabortegia behin betiko zigilatzeari ekin ahal izateko, zabortegiaren elementu berezi horretarako irtenbide bat bilatu eta proiektatu beharko da neurrira, honako hauek bermatuko dituena:

[2] Denominada “CELDA 1” en el proyecto de diseño de Bidein.

Baliozkotze Kod.: 7CQEJ3XYWM9F9JYWNEJ2FEYSN
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 16

- Ingurumen Baimen Integratuan eta indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betetzea.
- Isurketa-masaren euste-funtzioa eta euskarri izaera partziala mantentzea.
- Lixibiatuen gainezkabidea, lixibiatuen maila hustubidera iristen denean.

Esleipendunak organo eskudunarekin kontrastatu eta balidatu beharko du elementu hori zigilatzeko hartutako konponbidea.

4.4 Exekuzio proiektuaren edukia

Exekuzio proiektua idazteko orduan, obrak gauzatzeko hainbat fase hartuko dira kontuan (gelaxka berrian zigiluak jartzea, dikea zigilatzea eta obra osagarriak gauzatzea), eta aldi berean egin ahal izango dira.

Exekuzio Proiektuak honako dokumentu hauek jasoko ditu gutxienez:

1. Deskripzio **Memoria**, non obraren ezaugarri orokorrak jasotzeaz gain, aukeratutako soluzio konkretuak justifikatuko diren. Memoriak interesekoak izan daitezkeen aspektu partikularrak deskribatuko ditu, eta aplikatzekoa den araudiaren justifikazioa eta egindako kalkuluak jasoko ditu, baita fase desberdinetako obrak gauzatzeko kalkulatzen den epea ere (kronograma); orobat, kontratistaren sailkapen proposamena bilduko du, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen arabera.

2. **Aurrekontua**: neurketen egoera eta unitateko eta banakatutako prezioen kalkulua barneratuz idatziko da, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen arabera. Halaxe eskuratuko dira obra unitate bakoitzerako eta aurrekontua osatzen duten Kapituluetarako – Segurtasun eta Osasun Azterketa barne–balioak guztira. Balio guztion arteko batura Exekuzio Materialaren Aurrekontua izango da, zeinak %13ko hazkundea izango baitu gastu orokorren kontzeptuagatik eta %6koa, berriz, mozkin industrialaren kontzeptuagatik. Hortik aterako den baturari Balio Erantsiaren gaineko Zerga aplikatuko zaio, eta horrela obrak lizitatzeko oinarrizko aurrekontua lortuko da

   Obra unitateetan, horiek nola neurtu adieraziko da, berariaz edo bestela Baldintza Tekniko Partikularren Plegura jota.

   Obrak Lizitatzeko Oinarrizko Aurrekontua gorabehera, eta aurrekontu hori alde batera utzita, Kalitatea Kontrolatzeko Programaren aurrekontuaren zenbateko osoa eta xehatu gabea adieraziko da.

3. Obra exekuzioaren **Baldintza Tekniko Partikularren Pleguak** jasoko ditu proiektatutako obra eta instalazioen definizio osoa eta xehatua egiteko behar diren zehaztapen tekniko guztiak, bai materialen nolakotasunari eta kalitateari dagokionez, bai obra eta instalazio horiek exekutatzeari, obran jartzeari eta neurtzeari dagokienez.

Baliozkotze Kod.: 7CQEJ3XYWM9F9JYWNEJ2FEYSN
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 16

Ez du izaera ekonomiko nahiz administratiboko baldintzarik jasoko, eta halakoak jasoko balitu, obren kontratazioaren Baldintza Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan agertzen diren baldintzen menpean eta azpian leudeke.

4. **Planoek** informazio orokorra eta xehetasunezkoa jasoko dute, eta aski izango dira obrak guztiz definitu eta gauzatzeko; izan ere, hala tokatuz gero, obrak Proiektua erredaktatu duena ez beste teknikari baten esku utzi eta haren zuzendaritza fakultatiboaren pean egiteko moduan egongo dira.

5. **"Segurtasunari eta Osasunari buruzko Azterketa"**, non, indarreko legediaren arabera, obren exekuzioari aplikagarri zaizkion gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezarriko diren. Era berean, beharrezkoa bada, proiektuaren lanketa fasea koordinatuko du segurtasun eta osasun arloan.

6. **"Kalitatea Kontrolatzeko Programa"**, zeinean definituko diren indarrean dagoen Araudiaren arabera derrigorrezkoak diren saiakuntza eta kontrol guztiak, baita ere Proiektuaren dokumentuetan definitutako kalitateak obran betetzen direla kontrolatzeko beharrezkoak direnak; eta hori guztia arlo horretan indarrean dagoen araudiaren arabera.

7. **"Geosintetikoen Kalitatea Kontrolatzeko Programa"**, dokumentu berezia izango da, kontratu honen xedea den obran duen garrantziagatik, eta bertan definituko dira material geosintetikoetarako indarrean dagoen Araudiaren arabera derrigorrezkoak diren saiakuntza eta kontrol guztiak, baita ere Proiektuaren dokumentuetan definitutako kalitateak obran betetzen direla eta obran egoki jartzen direla kontrolatzeko beharrezkoak direnak; eta hori guztia arlo horretan indarrean dagoen araudiaren arabera. Halaber, inplikaturiko eragileen artean koordinatzeko irizpideak eta bakoitzak egin beharreko zereginak, hau da, geosintetikoen fabrikatzaileak, obren edo laborategiaren kontratista nagusiak, eta, zehazki, geosintetikoen instalazioaren kalitatearen bermea kontrolatzeko enpresa arduradunari dagozkion zereginak, enpresa horri dagozkion lanen aurrekontu xehatu batekin, zeina kontratatzeko oinarria izango den Mankomunitatearentzat.

   Memoria-dokumentu bat eta eranskin espezifikoak jasoko ditu, bai eta xehetasun-planoak ere, besteak beste, kokapenak, gainjartzeak, eraikuntza-xehetasunak eta geosintetikoen kalitate-kontroleko programa behar bezala garatzeko beharrezkoa den beste edozein informazio definituko dutenak.

8. **"Ingurunea Zaintzeko Plana"**, zeinean definitu egingo diren behin betiko zigilatze obrak egin bitartean hartu beharreko neurriak, ingurunea eta ingurumena babesteko helburuarekin.

9. Beste edozein dokumentu edo eduki tekniko, proiektuaren izaerarekin bat eginda, araudiengatik derrigorrezkoa bada edo egin beharreko obrak zuzen egiteko beharrezkoa bada.

Baliozkotze Kod.: 7CQEJ3XYWM9F9JYWNEJ2FEYSN
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 16

Exekuzio proiektua elkargo profesional eskumendunak bisatuta aurkeztuko da, eta hiru kopia aurkeztu beharko dira, paperezko formatuan eta elektronikoan (DVD bat dokumentazio osoarekin, irakurtzeko formatuan, .pdf, eta formatu editagarrian .doc, .xls, .dwg.).

Halaber, proiektuan dokumentu teknikoak sartuko dira, baita ere beharrezko legeztapenak, baimenak eta lizentziak lortzeko behar diren ekintza tekniko-profesionalen garapena ere.

4.5 Obra osagarriak zehaztu, diseinatu eta exekutatzea

Zabortegian egin beharreko zigilatze-lanez gain, idatzi beharreko proiektuak **zabortegiko baskularen inguruan dagoen arazoari irtenbidea** emango dio, lurzoruak asentamendu-arazo esanguratsuak baititu.



2. Irudia. Pisatze-baskularen inguruan dauden arazoak

Baliozkotze Kod.: 7CQEJ3XYWM9F9JYWNEJ2FEYSN
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 16



3. Irudia. Lurra finkatzeko arazoaren zantzuak aurkitzea

Bigarren obra osagarria **zabortegira sartzeko atea partzialki edo bere osotasunean birmoldatzean** datza, eta honako premisa hauek betez egin beharko da:

- Orri bikoitzeko atea izaten jarraituko du, eskuz ireki eta ixteko.
- Aire zabalean eta zaintzarik gabeko leku batean dagoen atea dela kontuan hartuta, sendotasuna eta iraunkortasuna izango ditu.
- Automatizazio-sistema batekin bateragarria izan beharko du; etorkizunean hala erabakitzen bada.
- Ixteko sistemak solidoa eta segurua izan behar du (nahi ez diren sarrerak saihesteko), eta sarrerak identifikatzeko aukera eman behar du, atea sare elektrikora konektatuta egon gabe.
- Atearen alboetako itxiturak sendoak izango dira eta ondo itxita egongo dira.



4. Irudia. Zabortegira sartzeko egungo atea

Baliozkotze Kod.: 7CQEJ3XYWM9F9JYWNEJ2FEYSN
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 16

5 – Obra zuzendaritza

Lizitazio fasean Mankomunitateari aholkularitza ematea obra zuzendaritzako zereginen barruan sartuko litzateke. Ildo horretan, esleipendunak ondorengoak egin beharko ditu:

- Beharrezko diren dokumentu guztiak egokitu eta idaztea, eraikuntza lanak lizitatzeko Mankomunitateak argitaratu beharko dituen plegu tekniko eta administratiboetan sartzeko, indarrean dagoen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera.
- Mankomunitateari laguntza teknikoa ematea proiektuaren alderdi teknikoak interpretatzeko eta baloratzeko.
- Mankomunitateari aholkularitza ematea eraikuntza lanetarako eta geosintetikoen kontrolerako lizitatzaileek aurkeztutako proposamenen balorazio teknikoa egiteko alderdi teknikoei buruz.

Obra Zuzendaritza obraren exekuzio osoan zehar mantenduko da, Mankomunitatea uneoro obren exekuzioaren garapenaz eta gorabeherez informatuaz.

Esleipendunak egin beharreko lanetan hauek sartuko dira, gutxienez:

- Zuinketa Egiaztatzeko Aktan laguntza eta sinatzea.

- Obrara aldizka eta sarri egin beharreko bisitak, oro har, gutxienez astean behin izango dira obra zuzendariarentzat, eta edonola ere fase kritikoetan presentzia etengabea izango da, baztertu gabe koordinaziorako eta jarraipenerako behar diren beste langile batzuen presentzia fisikoa egon beharko dela, zeinak esleipendunak jarriko dituen kontratuaren mesedetan.

- Obrako asteroko bilerak deitzea obren kontratistari, segurtasun eta osasuneko koordinatzaileari, Mankomunitateari, geosintetikoen instalazioaren kalitatearen bermea kontrolatzeko enpresari eta, edonola ere, behar diren beste parte hartzaile batzuei, eta bileren aktak egitea.

- Obrako Zuzendaritza Fakultatiboaren berezko lanak egitea, jarraibideak emanez, ahoz zein idatziz –idatzizkoak Aginduen Liburuan jasoaz–, proiektuaren dokumentuak egoki interpretatzeko, eta eraikuntzako elementuak zein instalazioetakoak ongi exekutatu, obran jarri eta prest jartzeko.

- Mankomunitateak deitzen dituen bilera eta saioetara joatea, obren exekuzioaren jarraipen egokia egiteko.

- Hileko txostenak egitea Mankomunitatearentzat, obraren exekuzioa eta martxa ekonomikoa nola doan azaltzeko, eta obraren jatorrian hileroko Ziurtagiriak ematea.

Baliozkotze Kod.: 7CQEJ3XYWM9F9JYWNEJ2FEYSN
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 16

- Obra prozesuaren argazkiak egitea, arreta berezia jarriz ezkutatuta geratuko diren zati ea elementuei. Argazkiak behar bezala datatu eta identifikatuta egongo dira, eta hileroko Txostenetan sartuko dira.

- Dagokionean, obren exekuziotik proiektuan ondorioztatzen diren doikuntzei buruzko dokumentazioa. Laguntza teknikoko kontratuaren barrukotzat joko dira bai proiektuetan bai beste dokumentu tekniko batzuetan egin beharreko aldaketak, izan Mankomunitatearen aginduz datozenak, izan beste administrazio batzuekin lizentzia nahiz baimen administratiboak tramitatzetatik datozenak. Hartutako irtenbideak esleipendunak defendatu beharko ditu, Mankomunitatearekin batera, organo eskudunaren aurrean.

- Obrak zabortegian egindako jarduerarekin koordinatzeko lanak gainbegiratzea eta zuzentzea. Horri dagokionez, eta Mankomunitatearen jarraibideen arabera, Koordinazio Plana behar bezala gauzatzeko arduraduna izango da obrak egiteko fasean, betiere kontuan hartuta zabortegiaren ohiko jarduerak une oro funtzionamenduan jarraitu behar duela, zabortegiaren inguruan garatutako jarduerei larriki eragin gabe.

- Obra zuzendaritzaren kontu izango da Kalitatea Kontrolatzeko Programaren jarraipena egitea, horren barne egonik Kalitatea Kontrolatzeko Liburua prestatzea eta obren amaieran Kalitate Kontrolaren Ziurtagiria ematea.

  Berariaz aipatu behar da obra-zuzendaritzak erantzukizuna duela zigilatze-obren gainean egin beharreko kalitate-kontrolaren gainean (geosintetikoen kalitate-kontrola). Horretarako, Mankomunitateak izendatutako enpresa independente baten partaidetza izango du, IBBan xedatutakoaren arabera, eta geosintetikoen instalazioaren kalitate-bermearen kontrolaz arduratuko baita, Geosintetikoen Kalitatea Kontrolatzeko Programan ezartzen diren baldintzetan.

  Eraikuntzaren Kalitatea Kontrolatzeko eta Bermatzeko Programaren emaitzak memoria batean islatuko dira, zeinean egindako lanak deskribatuko diren, emaitzen laburpen taulekin eta ondorioekin, baita eranskin batzuk ere, landa laneko eta laborategiko emaitza analitiko guztiak (laborategikoetan txosten osoak emango dira) eta plano takimetriko baten gainean markatutako laginketa puntuak jasoko dituztenak.

- Zabortegiaren azaleraren plano takimetriko bat jasotzea X,Y,Z koordenatutan (UTM 30N ETRS89), eman beharreko aldapak emateko gainazala birmoldatu eta gero, zabortegiak okupatuko duen azaleraren eta zigilatu beharreko azaleraren definizioarekin, zeinak gutxienez 1 m-ko zabalera izango duen banda gehigarri bat okupatuko duen birmoldaketa egin ondoren zabortegiak okupatuko duen azalerari dagokionez. Plano takimetriko horren gainean zigilatze lanetan agerian gera daitezkeen lixibiatuen iturburuak kokatuko dira, eta bakoitzean

Baliozkotze Kod.: 7CQEJ3XYWM9F9JYWNEJ2FEYSN
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 16

adieraziko da: emaria, pH-a, konduktibitate elektrikoa (CE) eta neurketaren data.

- Asistentzia eta sinadura obra hartzen denean.
- Likidazioa obraren jatorrian emango da, dagokion txostenarekin.
- Dagokion "as built" Eraikuntza Proiektua, dagokion elkargo profesional ofizialak bisatuta, bere planoen jokoarekin, obra-fasean egin daitezkeen aldaketek IBBn, eta haren oinarri diren agirietan, ezarritako baldintzekiko eta betekizunekiko segurtasuna murrizten ez dutelako justifikatuaz; baita argazki erreportaje bat ere, obraren amaieran ikusiko ez diren elementuena eta horien ezaugarriena, horren barruan sartuta xehetasun bista, kokapena planoaren gainean adierazita, zein bista panoramiko orokorrak.
- Mantentze Lanen Plana idaztea.

Esleipendunaren erantzukizuna izango da IBBaren E.2 ataletan zerrendatutako dokumentazioa prestatzea, Mankomunitateak ingurumen organoari aurkeztu eta onartu ahal izan diezaion:

- E.2.d: Hondakin ez arriskutsuen zabortegia zigilatzen amaitu eta gero, obra horien zuzendariak egiaztatu beharko du obra Ebazpen honetan eta bera oinarritzen duen dokumentazio teknikoan ezarritako baldintza eta betebeharren arabera gauzatu dela. Egiaztapena egiteko, zabortegi zigilatzeko obraren amaieraren ziurtagiri bat emango da, aipatu obra zuzendariak sinatuta, honako dokumentazio hau erantsita:
    - "As built" Eraikuntza Proiektua, dagokion elkargo profesional ofizialak bisatuta, bere planoen jokoarekin eta justifikazioarekin, adierazteko obren fasean egin daitezkeen aldaketek ez dutela segurtasuna murriztea ekarriko Ebazpen honetan eta bera oinarritzen duen dokumentazioan ezarritako baldintzei eta betebeharrei dagokienez; baita argazki erreportaje bat ere, obraren amaieran ikusiko ez diren elementuena eta horien ezaugarriena, horren barruan sartuta xehetasun bista, kokapena planoaren gainean adierazita, zen bista panoramiko orokorrak.
    - Plano topografiko bat X eta Y koordenatutan (UTM 30N ETRS89), eta kota absolutuak, zigilatze sekuentziaren lur begetalaren geruzaren goiko azalerarenak.
    - Eraikuntzaren Kalitatea Kontrolatzeko eta Bermatzeko Programaren emaitzak memoria batean islatuko dira, zeinean egindako lanak deskribatuko diren, emaitzen laburpen taulekin eta ondorioekin, baita eranskin batzuk ere, landa laneko eta laborategiko emaitza analitiko guztiak (laborategikoetan txosten osoak emango dira) eta plano takimetriko baten gainean markatutako laginketa puntuak jasoko dituztenak.

Baliozkotze Kod.: 7CQEJ3XYWM9F9JYWNEJ2FEYSN
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 16

Landu beharreko dokumentazioa ez biderkatzeko, esleipendunak obra amaieraren ziurtagiri bakar bat emango du, eta horri erantsiko dio D.2.3 eta E.2.d ataletan adierazitako dokumentazioa eta D.1.12 atalean adierazitakoa ere (ikus 8. Puntua, "Ingurumen aholkularitza"), baita beharrezkoa den edo ingurumen organoak, Mankomunitateak edo indarrean dagoen araudiak eskatzen duen dokumentazio guztia ere

Bermearen aldia amaitutakoan esleipendunak obrak ikuskatuko ditu, eta dagokion txostena idatziko du.

Laguntza Tekniko esleipendunak beharrezko dokumentu tekniko eta administratibo guztiak landuko ditu, eta beharrezko jarduera tekniko-profesionalak egingo ditu obrak egiazki egin ahal izateko behar diren legeztapen, baimen eta lizentziak lortzeko.

Oro har, proiektuari buruz Mankomunitateak edo beste erakunde eskumendunek (Ur Zuzendaritza, Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza, etab.) deitzen dituzten bilera guztietara joango da, Mankomunitatearen Laguntza tekniko gisa, eta bilera horien euskarri izango den dokumentazio tekniko-administratibo guztia prestatu beharko du.

"As built" Proiektua, eta horrela behar duten dokumentu guztiak, dagokion Elkargo Profesionalak behar bezala bisatuta aurkeztu beharko dira, eta bisatuaren gastuak betiere Esleipendunaren kontu joango dira.

6 – Segurtasun eta osasun arloko koordinazio zereginak

Esleipendunaren betebeharrak izango dira:

- ✓ Segurtasun eta Osasun Planaren onarpen justifikatua, dagokion Koordinatzailearen txostenarekin.

- ✓ Obrak hasteko behar diren tramitazio administratibo guztiak egitea, laneko arriskuak prebenitzearen arloan indarrean dagoen legedia betez. Horri dagokionez, Mankomunitateari aholkularitza emango dio egin beharreko tramitazioei buruz, beharrezko dokumentu administratiboak prestatuko ditu, eta egiaztatu egingo du obren kontratistak gaiari buruzko betebeharrak betetzen dituela.

- ✓ Segurtasun eta Osasun arloaren koordinazioa eta jarraipena obretan. Segurtasun eta Osasuneko Koordinatzaileak, gutxienez, astean behin egingo du bisita obrara, Segurtasun eta Osasun Planeko xedapen guztiak betetzen direla egiaztatzeko, gabeziak detektatzeko, dagozkion txostenak idazteko, neurri zuzentzaileak agintzeko, eta, finean, bere eginkizunari dagozkion zeregin guztiak egiteko.

Baliozkotze Kod.: 7CQEJ3XYWM9F9JYWNEJ2FEYSN
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 14. orrialdea, guztira 16

- ✓ Obraren asteko bileretara joatea, bere esparru funtzionalaren inguruko gaiei berri emateko, eta arriskuak prebenitzeko eta detektatutako gabeziak zuzentzeko hartu beharreko neurriak adierazteko.

- ✓ Laneko arriskuak prebenitzearen arloan indarrean dagoen legedia betetzeko behar diren ekintza guztiak, bereziki eraikuntza lanetako arriskuak ebaluatu, prebenitu, jarraipena egin eta zuzentzeari lotutakoak.

7 – Obren ingurumen aholkularitzako zereginak

Esleipendunak exekuzio programan jasotako ingurumena zaintzeko programaren jarraipena eta kontrola egingo du. Horretarako, beharrezko txostenak eta dokumentazioa emango ditu, eta IBBak ezartzen dituen Ingurumen Aholkularitza lanak egingo ditu, obraren fasean eta horren bermearen aldian zehar, bereziki D1 atalari dagokionez, "Obra fasearen baldintza orokorrak":

- D.1.1 Jarduera eremua mugatzea.
- D.1.2 Natur ondarea babestera zuzendutako neurriak hartzea.
- D.1.3 Lurra eta ura babestera zuzendutako neurriak hartzea.
- D.1.4 Hauts igorpenak murriztera zuzendutako neurriak.
- D.1.5 Zarata eta bibrazioen ondoriozko eraginak arintzera zuzendutako neurriak hartzea.
- D.1.6 Obran sortutako hondakinak egoki kudeatzera zuzendutako neurriak hartzea.
- D.1.7 Paisaia integratzen laguntzera zuzendutako neurriak.
- D.1.8 Obraren garbiketa eta akabera.

Ildo horretan, esleipendunaren erantzukizuna izango da:

- D.1.10 Lanen programaren diseinua.
- D.1.11 Praktika onen kontrola obrak garatzen diren bitartean.

IBBan adierazten denez (D.1.12 atala), esleipendunak obra amaieraren ziurtagiria emango du, obraren zuzendaritzak izenpetuta, honako dokumentazio hau izango duena, Mankomunitateak ingurumen organoari aurkeztu ahal izan diezaion, obra amaitu eta hilabete bateko epean:

- Obrak garatu bitartean gertatu diren gorabeherak.
- IBBan jasotako babes neurrien eta neurri zuzentzaileen betetze maila, baita ingurumen organoak agindutako neurriena ere hondeaketako materialak egoki kudeatzeari dagokionez.
- Obraren exekuzioan zehar egindako aldaketak, egin badira; horiek zehatz-mehatz dokumentatuta egon behar dira, justifikatuz (dagokionean, kalkulu arrazoituekin) ez dutela segurtasuna edo ingurumen babesa murrizten. "As built" planoak gehituko dira.

Baliozkotze Kod.: 7CQEJ3XYWM9F9JYWNEJ2FEYSN
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 15. orrialdea, guztira 16

- Obran zehar Ingurumena zaintzeko garatutako programen emaitzei buruzko txostena, hondeaketetan sortu diren materialen helmuga eta kantitate zehatza barne.
- Eraikuntzaren kalitatearen bermearen kontrolaren emaitzen txostena, bereziki geosintetikoen instalazioari edo material mineral trinkotuarekin in situ egindako barrera geologiko artifizialei dagokienez.

Hartu beharreko laginak hartzea, horiek bidaltzea eta laborategiko saiakuntzak egitea, baita landa neurketak egitea ere, obren kontratistaren kontu joango dira, proiektuan sartutako prezio unitarioekin bat eginda. Esleipendunak ahalmena izango du erabakitzeko laginak zein laborategitara bidali behar diren, zein baldintzatan, eta horiekin zer saiakuntza edo analisi egin behar diren.

Baliozkotze Kod.: 7CQEJ3XYWM9F9JYWNEJ2FEYSN
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 16. orrialdea, guztira 16